



Edorta Subijana

RULOT4x4.

Lau arkitekto, lau gupil, lau puntutan



RULOT

estudioa 2000

urtean jaio zen Donostian, arkitekturarako talde bat osatzeko intentzio eta ilusioa abiapuntutzat harturik. Gaur egun, Carlos Arruti, Arkaitz Lasa, Santiago Noain eta Anabel Varonak osatzen dugu RULOT

Gako-hitzak:
Lan-prozesua
Diseinu grafikoa
Altzari diseinua

Arkitektura ikasle batzuek joko moduan hasi zuten horretatik, lan-metodologia eta fluxua ezar gutzki aldatu dira. Sortze-lana, "Oslo"-etan eta "odol-paktuetan" oinarritutako lan-taldean datza, hauen bitartez, beranduago eraikiko dugun ideia bakar eta hutsera iritsiko garelarik.*

Bezero ona bere konfiantza eta ondo egiten jakite horrengatik idealizatu eta defendatzen dugu, horrek, proiektu nabiz obretan, positiboki eragingo baitu, kantitatean zein kalitatean. Eta horrela, konstante bakartzat aldaketa butsa duen mundu honetan, lehiaketa edo obra bakoitzak, Arkitektura den bide ez-linealaren ikasketarako erabiliko dugu.

RULOT estudioan, domestikotasunak duen izaera hori, lehen egoitzarena, beste edozein arkitekturatan aplikatu behar dugun bihotza dela pentsatzen dugu. RULOT, lehiaketa formatu nabiz obren gauzatzearen bitartez, erraztasuna, apaltasuna eta edertasunaren bilaketan dibardu.

**bilera bat izendatzeko "Oslo" izena erabiltzen dugu, Israel-Palestina konfliktuaren inguruan Oslon sinaturiko itunari erreferentzia. Horrela ikuspuntu desberdinek arazoak sortzen dizkigutenean, "Oslo" baten bidez konpontzen ditugu.*

1 RULOT&roll! Musika arkitekturaz elikatuz, musikaz elikatzen den arkitekturaz. Psilocybe-enea. Santiago Noain-i elkarriketa


Hondarribian Psilocybenea kontzertu-areto, grabaketa-estudio eta saio lokalak biltzen dituen zentroaren eraberritzea bukatu berri duzue. Badirudi proiektu honekin musikaren munduaren eta arkitekturaren arteko "feedback" antzeko bat bilatu dela, joan eta etorriko prozesu bat. Musikatik jaso duzun horren zati bat bueltatu diozue musikaren munduari. Santi, RULOT estudioko arkitektoetako bat izateaz gain, PSILOCYBE elkarteak partaidea ere bazara. Ba al du zerikusirik musikak arkitektura egiteko duzun moduan?

Zaila da horren prozesu konplexua hitz gutxitan azaltzea baina, tira, saiatuko gara... Funtsean, Psilocybe musika-elkarteak bere egoitza orijinala handitzea bilatzen zuen, horren inguruan gertatzen ziren aktibitate guztiak garatzeko beharrezko zituzten leku eta baliabideak barne, saio lokalak, kontzertuen antolaketa, grabaketa-estudioa, diskografikoa, bulegoak eta abar. **Proiektuak, eraikuntza eta toki baten eraberritzea, musika bezalako ideia zabal batek elkartutako jende multzoaren etxea eraikitzea bilatzen zuen.** Bertan zetzan proiektu honen konplexutasuna, jende talde heterogeneo horren babesleku egoki bat aurkitzean eta, jakina, soinu eta akustikarekin zerikusia duten auzi teknikoek eta estutasun espazialek mugatutako programa era egokian ebaztean.

Egia da programa konkretu eta ezaguna zela guretzat, musika-maitale eta parte-hartzaile baikara, nahiz ikusle nahiz jotzaile, eta ondo ezagutzen baitugu ikuskizuna zuzentzen duen liturgia. Segur aski horrek garrantzia handia izan du proiektatzeko orduan eta auzi desberdinen lehentasuna erabakitzeke orduan. Behin eraikuntza martxan jarri delarik, hau makina edo tresna moduan ulertuz, zuzen geundela esan dezakegu, eta talde guztiek, bai Eskandinaviatik etorritakoek bai bidasoarrek ondo ulertu dute aretoaren funtzionamendua eta eroso sentitu dira bertan, beren estilo edo ideologia musikala dena delarik. Bestalde, elkarteak jendea tokiarekin erabat identifikatua sentitzen dela iruditzen zait.

Guretzat hau lortzea obsesio bat bihurtu zen, **helburua musika aplikatuaren etxean bizi diren familia desberdinak jasotzen zituen identitate aglutinatzailea aurkitzea zen.**

Musikak guk egiten dugun arkitekturan duen garrantziaz egiten



Psilocybe-enea Hondarribian

Argazkia: Rulot estudio

diguzun galdera horri buruz, argi dago musika gure eguneroko bizitzan pisu nabarmena baduela, eta segur aski, eskola garaitik, RULOT taldean bildu gintuen identitate-lotura nagusietako bat izan dela. Proiektu edo lehiaketa bakoitzari bere soinu-banda aurki geniezaiokeela uste dut, eta lehiaketak lema bat baino gehiago abesti baten izena izaten bukatu du, Clash-en “Rock the Casbah” edo Beck-en abestiaren bat bezala. Ez dakit zein neurritan hau gure mintzaira arkitektonikoan itzultzen den, eta seguru asko honetaz hitz egitea praktikatik teoria ateratzea izango litzateke, eta ez gara hau egitearen oso lagun, baina dudarik gabe, musika prozesuaren osotasunean ageri da.

Musikaren munduan erabiltzen diren hitzekin deskribatu behar izango banu, RULOT Indie kutsua duen arkitektura-zigilu txiki bat dela esango nuke, tirada txikiko grabaketa finak argitaratzen dituzten horietakoak, aurkitu izanaz arto sentiarazten zaituzten horietakoak...

RULOT-ek bere lana dakien, eta ateratzen zaion, modu baka-rean egiten du. Ez dago misterio gehiagorik. Nire ikuspuntutik horixe da Indie deitu zuten horren balio nagusia.

2 RULOT House! Armairu mugikorak. Mobil-iaro Arkaitz Lasa-ri elkarritzeta


Magazine eta Living Deco aldizkariak antolaturiko Nuevo Diseño 2008 lehiaketa irabazi duzue mobil-iaro obrarekin, armairu mugikorren bitartez transformatzen den etxebizitza batekin. Zuen proposamenak erradikaltasuna eta erraztasuna batean biltzen ditu. Bizitzarako espazio baten malgutasuna, transformagarritasuna eta “noizbehinkakotasuna”-ri buruzko hausnarketa. Mobil-iaro-k oraindik ere arotz baten esku dagoen teknologia-ren bidez “etorkizuneko etxe” horretara hurbiltzen gaituzten saiakerak egiterik badagoela frogatzen digu.

Obra hau gure lagun batentzat egindako erreforma da; argazkilaria, iluminatzailea... edozein arkitekto nahiko lukeen bezero horietakoa.

Etxebizitzaren programak noizbehinkako bisitak jasotzeko, edo egoera ekonomikoak eskatu izanez gero errentan emateko, logela bat gehiago aurreikusten zuen. Presupuesto minimoaren asunto horrek proiektua modu berezian pentsatzera bultzatzen zaitu.

Horrela, bilketa-espazio guztia, sukaldea, etab. gordetzen zituena altzari longitudinal batek bitan, gau eta eguneko guneetan, banatzen zuen planta batekin lanean hasi ginen. Baina, diru falta zela eta, proiektua ez zen aurrera eramaten, beste obrak egiten joan ginen, baina urteak aurrera zihoazela, proiektu hau noizean behin gure mahaletatik agertzen zen. Azkenean, berriz hartu genuenean, luzerako altzari hori zatitan banatu eta gurpilak jartzea erabaki genuen. Mugitu ahal izango zen altzari bat egiten ari ginen, oso ideia oinarritzkoa.

Ondoren, armairu horiek ahalik eta neurri handienean ez-armairu izaera ematean, gurpilen funtzionamendu egokian, trabatzeko moduan, tiraderarik gabeko tiraderak diseinatzean eta bestelako xehetasunekin lanean aritu ginen. Oso zoru gogorra aukeratu genuen armairuak ongi irristatzeko eta guztia zuriz margotu genuen iluminatzaileak bere argiztapen-ideiak proba ahal izan zitzaizkion.



Mobil-ario

Argazkia: Rulot estudio


3 RULOT Rotulo! Tipo, kolore, argi ... eta arketa bat! EBAR

Carlos Arruti-ri elkarriketa

Aipagarria iruditzen zait zuen obran diseinuaren aspektu desberdinak ebazteko duzun gaitasuna. Kolorearen edo tipografien erabilera menperatzen duzue, normalean hauek diseinatzaile grafikoek ohiko tresnak direlarik. Baita produktuaren diseinua: ate eskutokiak, lanparak, altzariak ... Neurri batean, badirudi arkitektura ere diseinu horren luzapen bezala ulertzen duzuela, eskala handiago batera eramanez. Estudioaren izenak berak, RULOT, artefaktuaren eta arkitekturaren arteko hibridazio-puntu hori salatzen digu. Zentzu horretan zuen arkitekturen adierazpen-gaitasuna interesatzen zait, arkitektura, mezuaren euskarri soil bezala baino, ikusizko komunikazioaren fatxada berriak ba al du Venturi eta Scott-Brown-ek aipatzen zuten “ahate” eraikuntza horrekin zerikusirik?

Ponpaketa-estazio berriak, Allison eta Peter Smithsonek esango luketen moduan, obraren eta bezeroaren arteko elkarriketa sortzeko gaitasunaz hitz egiten digu, agian hor dago zuk aipatzen duzun diseinu grafiko horrekin lotura. “Ahate” (Duck) eraikuntza batean, formak funtzioa bilatzen du inongo apainketarik gabe; kasu honetan, hain zuzen ere, arketa erraldoi baten ideia Añarbeko ponpaketa-estazioari ezartzen zaio. Estazio hori “aparamen dekoratu” (Decorated Shed) moduan aurrezitzen zen, jatorrian La Herrera inguruko lantegiekin modu maltzurtean mimetizatzea bilatzen zuelarik. **Fatxada berri baten enkarguari erantzuna emanez, eta proiektutik abia-**

tuz, iradokitzen duzun arkitektura parlante izate hori planteatzen da, enpresaren presentzia era eragingarrian transmitituko duena. Ikusteko elementu nagusietan jarritako arretan eta egituraren ximpletasunean oinarrituz, nolabaiteko pertzepzio-eta memoria-erraztasuna lortzen da. Arketa itxura duen ponpaketa-estazio bat, hanburgesa itxura duen hanburgesa-postu bat bezala. Beste ikuspuntu batetik, “erabateko proiektua”-ren gaia, Loos-ek esango lukeen moduan, eguneroko erabilera duen objektua arte aplikatuarenaren ondoan jartzen duena, fatxadako zulaketen erabilera agertzen zaigu. Zulaketa hauek, fatxada poroz beteriko epidermis bihurtzen dute, ingeniariak proposatzen zituzten aireztatzeko-tximinien kalkuluei kontrajarriaz, hauek “arketa” ikonoaren osotasuna distortsionatuko bailukete. Behar ikonografiko edo figuratibo honetatik eta funtzionaltasun hutsarengatik, irudi korporatiboaren errepikapen bukaezina integratzearen sinbolikotasuna agertzen zaigu, aldi berean eraikuntzari errotulurik erantsi beharra ekidin eta argi naturalaren sarrera ebatziz. Ingurunearekin transpiratzen duen benetako azal bat, zeinuen mintzaira horretan, gai guztiak batera biltzen dituen eta eraikuntzaren barne-bizitza azaltzen duena. Ikono eta sinboloek dihardugu, baina nire ustez, pena da arkitekturaren naturan ageri den zeinuak —objektua beraren adierazle bezala— duen izaera unibertsal horretara iritsi ahal ez izatea, kea bezala, gizaki nahiz animalientzat ulergarria. Sinboloen esanahia gutariko batzuek erabakitako zerbait da eta gizarteak eta denborak mugaturiko balioa du, baina badaude denboran zehar iraun dutenak. Cromlech-ak adibidez?



EBAR. Arketa bat

Argazkia: Rulot estudio

4 RULOT hits the road!. Valencia-n etorkizunari begira.
Próxima2008
Anabel Varona-ri elkarriketa

2008ko urrian “Foro Arquia/Próxima”-ren lehenengo edizioa ospatu zen Valentzian. Ponpaketa-estazioaren fatxada berriaren obra arkitekto gazteek egindako 128 obren artean katalogatu eta RULOT estudioa gertakizun horretan parte hartzera gonbidatu zuten. Zuek, esperientzia hau barnetik ikusi duzuenok, nola ikusten duzue datorren arkitektura? Ba al dago izendatzaile komunik bilera hartan parte hartu zuten taldeen artean? Zein izango da arkitektoaren betebeharra egungo gizartearen?

Arkitekturaren kontzeptua dibertsifikatu behar dugula iruditzen zait, eraikuntzaren arloan, ideien arloan, diseinuan ... Inoiz baino gehiago taldean egindako lana izan behar du. Oinarrian, arkitektoa, soluzio baten bila, arazo baten zatiak bereizi, ulertu eta barneratzen saiatzen den pertsona dela uste dut. Hori beharrezkoa den neurrian, arkitekturak iraungo du. Objektuen eskala txikitik abiatuz, bizilekuaren eskala domestikotik pasatuz eta eraikuntza handien edo hirien eskalara iritsi arte.

Valentzian pasatutako egun hauetan, gure antzeko jendea, eta ez horren antzekoa, topatu dugu. Izendatzaile komuna profesio batean hasten ari diren pertsonak izatea da, nahiz eta batzuek jadanik 7 edo 8 urte daramatzagun. Kasu gehienetan prozesu geldoa da. Baina Próxima gertakizunaren alderdi interesgarriena, lehen aipatu dudan moduan, **karrera bukatzeko momentutik oso bide desberdinak jorratu dituzten pertsonak**

bildu izana da, oso gauza desberdinak egiten dituztenak. Lehiaketak, familia eta lagunen lokal edo etxebizitzaren berriketak, familia bakarreko etxebizitzak, kiroldegia ... baina baita, erakusketa-muntaiak, kongresu baterako marrazkiak, web orri bat edo aldamio-lonaz egindako zorroen diseinua ere.

Ez dut uste aurreko belaunaldien ondoan oso desberdinak garenik, momentu bakoitzeko inguruabarrak dira modu batean edo bestean jokatzera bultzatzen gaituztenak. Beste garaiekin dagoen desberdintasun nabarmenena da asko garela, eta arkitekturaren munduan beste bide batzuk aurkitu beharko ditugu. RULOT gertuko etorkizunean?, zaila da esatea, espero dut laurok elkarrekin jarraitzea, zoriontsu eta, estudioan diogun bezala, sudurra dakarten betaurrekoak ez ditzagun jarri behar, baina, zeinek daki.

